

Ezjakintasuna eta informazio falta Goi Tentsioko Linearen gainean



Azken hilabeteotan kezka eta ezinegon handiak piztu dira zeraindarren eta beste hainbat herritako biztanleen artean, Nafarroako Digaztelu eta Ezkio Itsaso batu asmo dituen goi tentsioko linea elektroaren proiektua dela eta. Proiektuaren sustatzaile den Red Eléctrica Española nahiz proiektuaren ardura duen Espainiako Ministerioak informazio oso gutxi helarazi dute orain arte. Ezjakintasuna da nagusi.

Informazio falta horren aurrean, Zeraingo Udalak aurrez ere egin bezala, Espainiako Ingurugiro Ministerioari proiektua zein egoeratan dagoen azaltzeko eskatu zion idatziz, abenduaren erdian. Horrekin batera, herriko hainbat puntutan Red Eléctrica Españolako topografoak egiten ari diren azterketak baimenik gabe direla esanez

kexua azaldu zion. Urtarrilaren erdian, Ministerioak idatziz erantzun zion Udalari "egun proiektua ingurugiro tramitazio prozesuan aurkitzen dela" esanez, eta behin hori bukatzean "ingurugiro estudioa eta instalazioaren proiektua" publikoki agertuko direla adieraziz.

Horretaz aparte, erantzunak argi gutxi ematen du goi tentsioko lineari buruzko proiektuaren informazio gabeziaren iluntasunean. Geroztik, Red Eléctrica Española Udalarekin harremanetan jarri da udaletxean apirilaren hasieran biltzeko. Bitartean, autopista elektrikoaren kontrako Goierriko nahiz Nafarroako plataformek lanean, protestan eta sentsibilizatzeko kanpaina eta ekintzekin, jarraitzen dute goi tentsioko linea hori ez dadin pasa ez Zeraindik eta ez beste inondik.

Aurten ere autobus zerbitzua egongo da herriko sagardotegietara etortzeko

Iaz abiatutako bidetik, eta iazko esperientziaren arrakasta ikusita, aurten ere Zeraingo sagardotegietara autobus zerbitzua egongo da denboraldiko asteburuetan. Otsailaren 8an hasita, ostiral eta larunbat iluntzetan doako autobus zerbitzua jarriko da Ordizia, Lazkao eta Beasaindik nahiz Legazpi, Zumarraga-Urretxu eta Ormaiztegitik Zeraingo Oiharte eta Oatza sagardotegietara etortzeko.

Autobus bat Legazpitiko eliza ondoko autobus geltokitik abiatuko da 20:00etan, Zumarragako tren geltokian geratuko da 20:15etan, eta Ormaiztegin frontoi aurrean 20:25ean. Beste autobusa Ordiziako tren geltokitik abiatuko da 20:00etan, Lazakaon Lazkao Txikiren plazan geratuko da 20:15ean eta Beasaingo tren geltokian 20:25ean. Itzulerako ordua berriz, gaueko 12:30ean izango da.

Erreserba egiteko sagardotegietara bertara deitu behar da (OTATZA: 943 801757 / OIHARTE: 686 299 158). Zerbitzu honen bidez, kotxea hartu behar dutelako sagardotegira joateko beldurrez dagoen jendeari konponbidea eman nahi zaio. Era guztietarako pertsonentzako dago pentsatua: kua-drillak, lagun talde txikiak, lantokietako lagun taldeak, familiak, gazte



taldeak... Hala, sagardotegietako txotx garaia indartu eta bezero berriak erakartzeaz gain, herriko garapen sozioekonomikoa bera indartu nahi da.

"Gazta eta sagardoaren mendia" proiektuaren jarraipena

Iaz martxan jarri zen "Gazta eta sagardoaren mendia" izeneko proiektuaren barnean ulertu behar da Goierriko hainbat puntutatik Zeraingo Oiharte eta Oatza sagardotegietara joateko jartzen den autobus zerbitzua. Proiektu honen helburua Zeraingo bi produktu izarrak lotzea

da, hau da, gazta eta sagardoa lotzea. Hala, sagardotegietara joateko autobus zerbitzua jartzeaz gain, beste hainbat egitasmo ere egin dira: gaztandegi eta sagardotegietara bisita gidatuak egiteko aukera eskaintzen da, kata ezberdinak ere egin daitezke, gazta eta sagardoaren inguruko erakusketa bat antolatu da, sagardogintzaren inguruko ikus-entzunezkoa prestatu da, sagardogintza eta gaztagintzari buruzko liburuxkak egin dira, etab. Gaur egun bisitariak gazta eta sagardoaren inguruko bisita ezberdinak egiteko aukera eskaintzen da.





Lasurtegiko hezegunean bisita

Euripean, hezegunea oso-oso heze zela egin zen Lasurtegiko hezegunera bisita otsailaren 2an. Bisitan zehar, Aranzadi Zientzia Elkarteko Botanika eta Herpetologia saileko adituek Lasurtegiko hezegunean egin duten ikerketaren berri eman zuten. Aurreko ostegunean, hitzaldia eskaini zuten kultur etxean, baina betiere, bertatik bertara askoz hobeto azaldu ahal izan zituzten Lasurtegiko hezegunearen ezaugarri nagusiak. Euriak atzeratuta, ez zen jende gehiegi animatu eta horregatik beste bisita gidatu bat pendiente geratu da.



Tuteko txapela herrian geratu da

Urtarrilaren 26an jokatu zen Liztormendiko aurtengo tute txapelketa. Beste urte batzuetan baino jende gutxiago animatu zen arren, guztira ia 30 lagun batu ziren karta jokora. Eta guztien artean bi herritar izan ziren nagusi: Iban Aizpeolea eta Koldo Aizpeolea lehengusuak. Kartetan maisuak direla erakutsi zuten, finalean, bi segurarri



„Fernando Ferreirari eta Augusto Fernandezi irabazita.

Zeraingo etxeetako ur kontadore zaharrak aldatuko dituzte

Gipuzkoako Urak-ek jakinarazi duenez 2012 urteko laugarren hiruhilabeteke irakurketetan aurkitu dituzten kontagailu zahar edo matxuratuak otsailaren 25eko astean hasiko dira aldatzen. Kontadore aldaketa hauek ez zaizkie abonatuak kobratuko. Gai honi buruzko edozein zalantza argitu nahi izanez gero 902 30 22 22 telefonora edota Gipuzkoako Urak-en bulego birtualera, www.gipuzkoakour.com helbidera, jo daiteke.



Xagu-txoko




Babesetik

ABENDUA	al	ar	az	og	or	lr	ig
						1	2
Euria (l/m)	GUZTIRA: 158,25 l					0	2,5
C° altuena	ALTUENA: 18,3°					6,1	10,2
C° baxuena	BAXUENA: -1,1°					-1,1	-0,7
	3	4	5	6	7	8	9
Euria (l/m)	2,5	27	45	0	6	17	1
C° altuena	14,7	8,9	8,5	9,5	10,5	9	9
C° baxuena	6,8	5,5	4,4	3,7	4,8	6,1	3,2
	10	11	12	13	14	15	16
Euria (l/m)	0	0,25	0	6	29	0	6
C° altuena	6	8,8	7,3	11,3	12,7	15,8	14,5
C° baxuena	-1	4,9	-1	6	9,9	9,3	11,2
	17	18	19	20	21	22	23
Euria (l/m)	0	3	0	0	1	0	0
C° altuena	11,8	12,3	14,2	14,7	15,2	15,4	16,5
C° baxuena	6	2,1	10	10,7	9,7	7,6	6,8
	24	25	26	27	28	29	30
Euria (l/m)	0	1	1,5	0	0	1,5	6
C° altuena	18,3	12,5	12,6	12,6	14,3	14,6	11
C° baxuena	12,9	11	7	2,3	4,2	8,6	1,1
	31						
Euria (l/m)	2						
C° altuena	12,2						
C° baxuena	1,1						

Abendua nahiko epela eta bustia

Nahiko epeletik joan zen abendua. Ikusi besterik ez dago hileko tenperatura baxuena zeropetik gradu bakarrekora izan zela eta hain justu ere abenduaren batean izan zela. Gabon garaia berriz, epel-epel joan zen. Beraz, tenperatura aldetik nahiko suabea izan zen abendua. Euriari dagokionez ordea, udazkeneko bideari jarraituz egun busti dezentte izan ziren (16 guztira), nahiz eta denera 160 litrotik ez zen pasa. Negua epel eta busti hasi genuen.



Hainbat luizi eta gorabehera batzuk neguaren hasieratik



Udazkenean zehar egindako euriaren bidetik, urte hasieran ere urak zerutik behe-erortzen jarraitu du. Eta horrek errekek eta errekatxoak haztearekin batera, hainbat gorabehera ere sortu ditu luiziekin eta eroritako zuhaitzekin. Iruditan Artegitik Larraondora bidean urtarilaren 16 iluntzean erori zen luizia. Errepidea erabat itxi zuen, baina hurrengo eguneko eguerdirako Diputazioko langileek garbitu zuten.

KZ gunearen ordutegia

Martxoan, KZguneko dinamizatzailearen bisita egunak, asteartetan izango dira: 5ean eta 19an hain zuzen, eta arratsaldeko 4etatik 5etara egongo da bertan.

Zilarrezko aizkora saioa otsailaren 9an



Otsailaren 9an, larunbata, Zilarrezko Aizkorako saioa jokatu da pilotalekuan eta bertan arituko da Xabier Dorronsoro herritarra Xabier Zaldúa lagun duela. Aurkari Rodriguez aita-seme segobiarrak izango dituzte. Bestalde, Jauregik eta Kañamaresek Erdozia II eta Goizeder Beltzaren kontra neurtuko dituzte indarrak. Aizkora saioa iluntzeko 7etan hasiko da.